

	<p><b>ESKUALDEKO AGENDA 21</b></p> <p><b>INGURUMEN LAN-TALDEA</b></p> <p><b>2008/11/26 Arratsaldeko 16.00-17.45</b></p>	
---	---	---

Gaurkoa, 2008ako Eskualdeko Agenda 21eko Ingurumen lan-taldearen urteko azken bilera izango da. Bileraren helburua, urtean zehar Goiekitik egin diren ekintzen berri eman eta 2009. urtera begira ekintza berriak proposatzea izango da. Honez gain, Ingurumen gaietara dagokien Ekintza Plana berrikusi beharra azaldu eta eztabaidatu nahi izan da.

Honenbestez, lanean hasiko gara!

### Honako hauek bildu gara

Ioritz Imaz (Idiazabalgo Udala), Joanes (CCOO CAF), Esteban Perez (Legorretako Udala), M<sup>o</sup> Rosario Urretabizkaia (Aramako Udala), Patxi Plazaola (Beasaingo Udala), Iker Galpasoro eta Iker Azurmendi (Goieki) eta Leire Garmendia, Rosa Aurkia eta Zuberua Jauregi (LAIA S.Coop.).

### Gaurko bileraren egitura

Gaurko bilera 3 atal nagusitan banatuko dugu:

1. 2008an Goiekitik aurrera eramane dituen ekimenen azalpena.
2. Ekintza Planaren (2006) berrikusketa beharra azaldu eta eztabaidatzea.
3. 2009an Goiekitik bultzatu daitezkeen ekintzen proposamenak jasotzea eta lehentzea

Lehen bi puntuak informatzaileak izango dira eta hirugarrena, aldiz, talde dinamika erabiliz osatuko da.

### Lanarekin hasiz...

#### **1. 2008ko ekimenen azalpena**

Aurten Ekintza Planetik aurrera eramane dituen ekintzen berri eman da (aurkezpenean azaltzen dira\*)

#### **2. Ekintza Planaren (2006) berrikusketa beharraren azalpena eta eztabaida.**

2006an onarturiko Ekintza Plana berrikusi beharra dagoela adierazi da. Ekintza Planeko ekintzak egiten joan izan badira ere, orohar, Ekintza Planeko ekintza ugari zehaztapen maila baxua dute, ardurak ere ezarri gabe daude eta bere garaian lehentasuna zuten ekintzak agian gaur ez dute balio berdina. Arrazoi ugari daude beraz, Ekintza Planeko berrikusketa prozesu bat hasteko.

	<p><b>Eskualdeko Agenda 21</b></p> <p>1 / 2</p>	
--	---	--

	<p><b>ESKUALDEKO AGENDA 21</b></p> <p><b>INGURUMEN LAN-TALDEA</b></p> <p><b>2008/11/26 Arratsaldeko 16.00-17.45</b></p>	
---	---	---

Hasiera batean berrikusketarekin gaurko bileran hastea aurreikusi bada ere, prozesua sakonagoa dela adierazi da eta datozen bileretan ekingo zaiola azaldu da. Partehartzaileak ados agertu dira eta guztiz beharrezko ikusten dute Ekintza Plana berrikusi eta gaur egun lehentasuna duten ekintzak bertan zehaztea.

### **3. 2009an Goiekitik bultzatu daitezkeen ekintzen proposamenak jasotzea eta lehentzea**

Ekintza Proposamenak jaso eta lehentzeko TALDE DINAMIKA prestaturik bazegoen ere, partehartzaile gutxi izatean ezin izan da talderik osatu eta denen artean egin da ekintzen proposamena. Hauek dira egin diren ekarpenak:

- Hondakin Organikoen kudeaketa eredu ezberdinak egonik (Usurbilen etxez etzeko bilketa ereduak, Azpeitiko ereduak,...) hauek aztertzea eskatzen da.
- CAFen hondakin organikoak kudeatzen hastera doaz. Praktik on bezela etorkizunean beste enpresetan aplikagarria izan daiteke.
- Goierriko udaletan martxan dauden praktika on ezberdinak (argiterian, instalakuntza ezberdinen efizientzia, geotermia, eguzki plakak,...) gainerako udalei azaltzea.
- Polikiroldegietako arduradunekin egon kontsumo mailan (ura, energia,...) neurriak har ditzaten (Ekoskan bat eginaz,...)
- Udalerrientzako interesgarriak eta eredugarriak izan litezken ordenantza mota ezberdinak ezagutzera eman.
- Eskualdeko arkitekto eta teknikariei eraikuntzan dauden eskaera berrien inguruko formazio moduloak eskeini (IVAP)
- Energia aurrezpen eta efizientziari buruzko formazio hitzaldiak antolatatu ("Emer in town" sistema)
- Eskola oinez programa eskualde mailan bultzatzea.
- Irisgarritasun eta segurtasun legea askotan kontrajarri egiten dira eta geroz eta kasu gehiago dago udalerrietan. Udalen arteko erizpideak bateratuaz gaia "xamurtu" daitekeela uste da.

**Proposatutako ekintza gehienak formazio, informazio eta sentsibilizazio arlokoak izan dira.** Ekintza hauek Goiekiko administrazio kontseiluak, datorren urteko aurrekontuak erabakitzeke egingo duen bileran kontutan hartuko direla adierazi da. Ekarpenak egiteko denbora gehiagoren beharra dagoela sumatu denez, kontseilu bilera bitartean proposamen gehiago egin ditzazuen **aste beteko epea uzten dugu ekarpen berriak egiteko (abenduak 5 arte)**

	<p><b>Eskualdeko Agenda 21</b></p> <p>2 / 2</p>	
--	---	--